

Ordizian, 2015eko urtarrilaren 29a UDALBATZARRAK Ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

Igor Eguren Izagirre jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Eduarne Gutierrez Jauregi andrea	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika jauna	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna	EAJ taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	EAJ taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	EAJ taldea
Arantzazu Garin Garmendia andrea	EAJ taldea
Bittor Bolinaga Alzelai jauna	EAJ taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

IDAZKARIA:

Unai Rekondo Perez jn.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jn.

BESTE BERTARATZE ETA IRTEERAK



AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

- 1.- 2014ko abenduaren 18an udalbatzarrak egindako aparteko bilkuraren zirriborroa onartzea.
- 2.- Alkatetzako dekretuen berri ematea.
- 3.- Funtzioak Alkateordearen esku uzteari buruzko dekretuaren berri ematea.
- 4.- Ordiziako Bake Epaitegiko arduradunak aurkeztutako mozioa, Erregistro Zibilaren kudeaketa merkataritzako erregistratzaileen esku uztearen aurka.
- 5.- Merkatarien Elkartek aurkeztutako mozioa, Merkataritza Legearen aldaketari buruzkoa.
- 6.- "Mugj" txartelari lotutako Hitzarmena.
- 7.- Aurrekontuaren aldaketen kontu ematea.

PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:

GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAHIAK:

GORABEHERAK

ORDUTEGIA:

HASIERA: 19:00 etan

AMAIERA: 19:45etan



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2014ko abenduaren 18an egindako aparteko Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2014ko abenduaren 18an egindako aparteko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Kontuhartzaile jn

2015eko aurrekontua aktan sartu beharrian, 2014koa sartu da.

Hau zuzentzea onartu da.

Gutierrez andrea

Ez zela etorri esan du eta aktan hori zuzendu behar dela.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketan egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 12 (BILDU 6, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 1 (Eduarne Gutierrez andrea abstenitu da ez zelako bilera horretan izan)

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



2.- Alkatetzako dekretuen berri ematea.

Alkatetzako dekretuen berri ematea (2014ko abenduak 15etik 2015eko urtarrilak 15era bitartekoak).

Udalbaltza plenoa jakinaren gainean geratu da.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

3.- Funtzioak Alkateordearen esku uzteari buruzko dekretuaren berri ematea

- Funtzioak Alkateordearen esku uzteari buruzko dekretuaren berri ematea.

2015eko urtarrilak 14 data duen dekretuaren berri eman da. Zenbakia: 0018

Udalbaltza plenoa jakinaren gainean geratu da.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

4.- Ordiziako Bake Epaitegiko arduradunak aurkeztutako mozioa, Erregistro Zibilaren kudeaketa merkataritzako erregistratzaileen esku uztearen aurka.

Alkate jauna:

Mozioaren zati erabakitailea irakurtzeari ekin dio.

UDALARI AURKEZTEKO MOZIOA

Erregistro Zibilak gure bizitzaren gertaera garrantzitsuenak jasotzen ditu. Bertan erregistratzen dira norberaren jaiotza, ezkontza, seme-alabak, eta heriotza. Baita hasierako inskripzioa aldatzea eragiten duten bizi gorabeherak jasotzeko espedienteak ere izapidetzen dira hor: aitasun edo amatasun aitortzea; adopzioa; ezgaitasun-deklarazioa; tutoretzak; izen, abizen edota sexu aldaketak; nazionalitatea eskuratzea; pentsio publikoak edo aseguruak edo osagai pribatuak edo enpresarenak kobratzen jarraitu ahal izateko gure nagusiek hain beharrezkoa duten bizi-agiria ematea. Horregatik, funtzionario publikoak



izan dira Erregistro Zibila eraman dutenak betidanik; izan ere, duela zenbait urte Justizia Ministerioko (edo erkide autonomiko Justizia saileko) funtzionarioek bermatzen dituzte jasotako datuak eta, era berean, legalki dagozkion pertsonari haien eskuratze libre eta doakoa.

Bake epaitegiek herritarrei Justizia administrazioa hurbiltzen diete, alderdi diren edozein prozeduraren inguruko informazio orokorra eskaintzen dietelako, eta honez gain, Erregistro Zibileko izapideak betetzen dituztelako. Horrela, herritarrek ez dute horrelako tramiteak egiteko hiriburuetara joan behar, hainbat herritan bake epaitegia dagoelako.

Azken urteetan, gainera, Herri Administrazioak diru inbertsio handia egin du Erregistro Zibilaren jarduna modernizatzeko: zerbitzu honi dagozkion dokumentuak informatizatu eta digitalizatu eta bertan dauden datu guztietarako sarbide eta erabilpen segurua eta kontrolatua izateko programa martxan jarri du. Zehazki, diru publikotik 128 milioi euro baino gehiago inbertitu dira teknologia berri hauetan.

Alderdi Popularraren gobernuak Erregistro Zibila esku pribatuetan utzi nahi du, horren kudeaketa merkataritza erregistratzaileei emanez, bake epaitegien eta gaurko barruti judizialen existentzia zalantzan jarri. Horrela jasotzen da Botere Judizialaren Lege Organikoa eta Auzitegi eta Epaitegien Mugape eta Antolaketari buruzko Legea aldatzeko aurreproiektuetan, eta uztailaren 4ko 8/2014 Errege Dekretu Legean.

Aurtengo otsailaren 20an, PNV-EAJ, Euskal Herria Bildu eta Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra alderdien babesarekin, Eusko Legebiltzarrak legez besteko proposamena onartu zuen Erregistro Zibila gaur egun dagoen moduan mantentzeko, hiritarrei zerbitzu publikoa eta dohainikakoa eskaintzeko.

Zehazki, pribatizazioak ekarriko ditu:

1. 3.500 langile publikoen lanpostuen galera. Hauek prestatuak izan dira, eta gaitasuna eta espezializazioaren jabe dira Erregistro Zibil arloan.
2. Bake epaitegiak egungo zereginenez hustea lehen neurria da, euren desagertzea bilatuz gerokoan. Norabide horretan, Botere Judizialaren Lege Organikoan eta Auzitegi eta Epaitegien Mugape eta Antolaketari buruzko Legean egindako aldaketek aukera ematen diete, ez soilik bake epaitegiak desagertzeko aukera, baizik eta barruti judizial gehienak ere, epaitegiak hiriburuetan soilik kokatuko dituztelarik.
3. Tasak jarriko dira zerbitzua ematearen truke. Egia da 8/2014 Errege Dekretu Legeak esaten duela zerbitzua doakoa izango dela, baina Merkataritza Erregistratzaileak, lanbidera sartzeko erari eta monopolio gisa duten zereginari dagokienez, funtzionario publikoak izan arren, muga-zergen bitartez kobratzen dute egindako zerbitzua; eta etorkizunean, Erregistro Zibilean egin beharreko izapideak ere horien bitartez kobratuko dituzte, hau da, herritarrei nahitaezkoak zaizkien jaiotze bat erregistratu, familia liburua, heriotza, ziurtagiriak, bizi eta egoera agiriak, etab... Gainera, lege berriak erregistratzaileen ahalmenak handitzen ditu eta inskribatu beharreko kontuak ikaragarri puzten (edozein ahalorde, helbide



inskripzioak, pentsio-planak, testamentuak...), hauek guztiak, jakina, herritarrek ordaindu beharko dituzte. Horrela, hemendik aurrera Erregistro Zibilak merkatal jarduera izango du, eta egite bakoitzak bere salneurria izango du, eta jasotako dirua gutxiengo pribilegiatu horientzat izango da.

4. Datu babesaren segurtasun falta. Merkataritza Erregistroko langileak ez dira funtzionario publikoak baina herritarren datu pertsonaletarako sarbidea izango dute, nahiz eta funtzionario publikoak ditugun isilpeko eta sekretuko betebeharrak ez izan.

5. Azken urteetan Erregistro Zibila modernizatzeko egindako inbertsioa esku pribatuetara pasatuko da, kudeaketaren emate horrek baitakartza baliabide material guztion ematea ere. Baliabide materialak ematea diru publikoa xahutzea da: inbertsioak eginak daudelako, baliabide materialak ordainduak, azpiegiturak eginak eta giza baliabideak kontratatuak, formatuak eta gaituak. Hots, diru publikotik 128 milioi euro oparituko zaie Merkataritza erregistratzaileei euren onerako.

6. Erregistro Zibilean gordetzen diren gure historia pertsonalerako, familiarerako eta herri gisa dauzkagun datuetarako sarbidea murriztea. Gure arbasoen, haien jatorriaren eta bizimoduaren gaineko informazioa aurki baitaiteke bertan.

Hau guztia dela eta, ORDIZIAKO Udalaren Osoko Bilkurari eskatzen dizkiogu:

- Merkataritza erregistratzaileei Erregistro Zibilaren kudeaketa ematen dion uztailaren 4ko 8/2014ko Errege Dekretu Legearen aurka ager dadin.
- Halaber, adieraz ditzan bake-epaitegiak eta gaurko Erregistro Zibilaren bulegoak izan behar direla Erregistro Zibilak kudeatzen dutenak, herritarrei zerbitzu publikoa eta dohainikakoa eskainiz, orain eta betiko.
- Kontutan izanda aipatutako EDLa indarrean sartuko dela 2015eko uztailaren 15ean eta aurtengo otsailean Eusko Legebiltzarrak onartutako ebazpenarekin bat eginda, udal honek eska diezaion Eusko Jaurlaritzari Erregistro Zibila kudeatzeko eta betearazteko eskumenak jasotzeko negoziazioak azkar ditzan.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez dira izan.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldatetan egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:



Aldekoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)
Aurkakoak: 0
Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

5.- Merkatarien Elkarateak aurkeztutako mozioa, Merkataritza Legearen aldetari buruzkoa.

Intsausti andrea

Mozioaren zati azaltzailea hitzez-hitz irakurri du.

Proposamena

Ordizian elkarateak, hurrengo erakundeek eratutako plataformako ordezkariarekin:

- ECA-OCUV kontsumitzaile antolaketa.
- EKE-a kontsumitzaile antolaketa
- Euskadiko Merkatarri Elkarteen Konfederazioa, Euskaldendak.
- Bizkaiko Merkatarri Elkarteen Federazioa, Bizkaidendak.
- Gipuzkoako Merkatarrien Elkartea, Dedartea.
- ELA sindikatua.
- LAB sindikatua
- CC.00 sindikatua.
- UGT sindikatua.

7/1994 Merkataritza aktibitatearen buruzko Legearen ustezko Laugarren Aldaketari buruzko kezka jartzen dugu zure ezagueran eta 2014ko irailaren 1eko erabakia, Merkataritza eta Turismoko Sailburuordearena, non erabakia publikoa egiten den, Bilboko udalean, etorri turistiko handiko zonei buruzkoa, merkataritza ordutegien aldetik

Proposamen honen jatorria, "etorri turistiko handiko nonetako" aurreikuspenetatik ondorioztatutako beharizan okerra da 20/2012 Errege-Dekretu-Lege-an (aurrekontu egonkortasuna eta lehiaren sustapeneko neurriak bermatzeko, uztailaren 13koa) eta 8/2014 Errege-Dekretu-Legean (hazkunderako, lehiarako eta eraginkortasunerako presazko neurrien onespenekoa. uztailaren 4koa) jaso.



Beharrizan ikerra diogu, Esko Jaurlaritzako merkataritzan inguruko kompetentzien inbasio argia delako.

Puntu hori alde batera utziz, Errege-Dekretu-lege horiek duen transposizio zorrotzak, hurrengo hauetan ditu ondorioak:

1. Generoaren aldetik, emakumezkoak nagusi diren sektore batean (okupazioaren %63) eta haien lanaldiak aldaketak jasango dituela jakinik, atsedenerako eskubideari eragingo lioke eta bizitza familiarra eta bizitza laborala zailduko lituzke.
2. Barne merkataritza, merkataritza turistiko bilakatzea. Horrek legegintzan esku-hartze bat suposatuko luke, gastu publikoaren transferentzia bat guri eragiten digun zonetan.
3. 2.261 merkataritza establezimenduaren suntsiketa eta 3.886 enpleguaren galera hirigunetik kanpo.
4. Zerga bilketetan galera, izan ere, merkataritza establezimendu txiki asko, sedea hemen dutenak, itxi egingo lirateke (BEZ bilketan galerak, sozietate gaineko zergetan galerak, etab.). Gainera, alokatzeko prezioen gorakadak, merkataritza establezimenduen irteera eragingo du kaltetuetako eremuetan.
5. Ingurumenaren iraunkortasunean eragina (energia kontsumoa eta ibilgailu pribatuaren erabilera handitu). Beste esperientzia batzuekin konpartzen badiugu, adibidez, Alemaniako kasuarekin. Aldagai hauek bizitza laboralararekin batera kontuan hartzen dira araututako ordutegiak sortuz.

Egoera hauek aztertuta, horiei buruzko eranskina bidaltzen dizuegu (emandako aldarrikapenekin). Eusko Jaurlaritzan eta Eusko Legebiltzarrean ahalik eta arinen mozio bat aurkezteko eskatzen dizuegu, aipatutako aurrekartetan oinarrituz:

1. Euskadiko autogobernuaren eta merkataritzaren inguruko kompetentzia propioen defentsan, Konstituzio Auzitegian merkataritzako eta turismoko aurreikuspenak errekurritzeko, 20/2012 Errege-Dekretu-legean (aurrekontu egonkortasuna eta lehiaren sustapeneko neurriak bermatzeko, uztailaren 13ko) eta 8/2014 Errege-Dekretu-legean (hazkunderako, lehiarako eta eraginkortasunerako presazko neurrien onespenekoa, uztailaren 4koa) jasota daudenak.
2. 2014ko irailaren 1eko EBAZPENA baliogabetzeko, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena, non Bilboko udalaren etorri turistiko handiko zonei buruzko erabakia publikoa egiten den, merkataritza ordutegiari dagokiona.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.



Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Santamaría jauna

Adierazi du nahiago dutela zati erabakitzaileko 2 puntuak aparte bozketatu, 2 puntuekin ez daudelako ados.

Alkate jauna

Adierazi du aparte bozkatuko direla.

Lehendabiziko puntuaren Bozketa

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.

Bigarren puntuaren Bozketa

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 8 (BILDU 7,, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 5 (EAJ 5)

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

6.- Mugi txartelari lotutako hitzarmena

Proposamena

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Xedea.

Hitzarmen honen xedea da GGLak taldeentzako mugi txartelak eskatzen dituzten pertsonak Gipuzkoako udalerriren batean errolatuta egoteko behararen eskakizunaren gainean datu pertsonalak erabiltzeko baldintzak ezartzea, baita GGLak mantendu behar duen konfidentzialtasun esparrua ezartzea ere.

BIGARRENA.- Datu pertsonalen konfidentzialtasuna eta tratamendua.

GGLak aitortzen du badakiela eskuratzen duen informazio guztia eta, bereziki, izaera pertsonala duen informazioa erabat konfidentziala dela, eta horren arabera, bere erantzukizunpean, bere buruari betebeharrak ezartzen dizkio:

1. Informazioa lehenengo klausulan deskribatutako xederako erabiltzea eta hirugarrenengoei ez ematea.
2. Egoki lekiokoen edozein betebeharrak betetzea, indarrean dagoen arau esparrua eta, zehazki, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoa eta hori garatzeko erregelamendua modu zorrotzean errespetatuz.
3. Hirugarrenei informazioa ez jakinaraztea, ez ezagutaraztea, ezta hori gordetzeko ere.
4. Informazioa soilik beren betebeharrak hori ezagutu gabe bete ezin dituzten langileei jakinaraztea. GGLA sekretu betebeharrak betearaztearen arduraduna izango da, beharrezkoak diren neurriak hartuz.
5. Bai GGLA bai bere langileak atal honetan ezarritako konfidentzialtasunaren eta sekretu profesionalaren betebeharrari lotuta egongo dira.

HIRUGARRENA.- Segurtasun neurriak.

GGLak eskuratzen duen informazio ororen konfidentzialtasuna gordetzeko beharrezkoak diren neurri teknikoak eta antolatutakoak hartzeko konpromisoa hartzen du, bereziki informazio pertsonala, datuen segurtasuna bermatzeko eta horiek aldatzea, galtzea edo baimenik gabe eskuratzea saihesteko moduan.

LAUGARRENA.- Aplikatzeko printzipioak.

Hitzarmen honetan printzipio eta arau hauek bete behar dira:

1. Datuak, dauden zeregin eta beharrera egokituko dira.
2. Eskatzen diren datuak horiek erabiltzeko xedeekiko proportzionalak izango dira.
3. Datuak transmititzeko eta eskuratzeko baliabideak seguruak izango dira.
4. Kostuak eraginkorrak eta ahalik eta txikienak izango dira.
5. Datuak ezingo dira transferitu.



Kasu guztietan, GGLAk, aurretiaz, eragindako pertsonen baimena jaso beharko du horien erroldako datuak eskuratzeko. Emandako baimena jasota geratuko da dagokion espedientean.

BOSGARRENA.- Datuen izaera eta hitzarmenaren xedea gauzatzeko metodologia.

Hitzarmen honen xede diren datuak soil-soilik GGLAren aldetik erabiltzaileen erroldatzea egiaztatzen mugatuko dira.

Horrela, hitzarmen honetan deskribatutako taldeentzako MUGI txartelak eskatzen dituzten pertsonak Gipuzkoako udalerrri batean erroldatutako daudela egiaztatuko da.

Hitzarmenaren xedea burutzeko erabiliko den metodologiari dagokionez, adierazi behar da soil-soilik sistema informatikoak erabiliko direla, SFTP, FTPS edo SSL, esaterako. Dena den, sistema horiek, datu pertsonalak babesteko araudiak eskatzen dituen segurtasun, osotasun eta konfidentzialtasun berme guztiak bete beharko dituzte.

SEIGARRENA.- Ez betetzeak.

Informazio hori modu okerrean erabili edo eskuratzeari egon litezkeen erantzukizun penal, administratibo edo zibilak, edo datuak isilpean gordetzearen urratze oro alde batera utzita, eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziari edo Datuak Babesteko Euskal Bulegoari (otsailaren 25eko 2/2004 Legeak sortua) dagozkien zereginen kalterako izan gabe, aldeetako batek hitzarmen honetan jasotako betebeharren bat betetzen ez badu, besteari zuzenbide osoz eta berehala amaitzeko ahalmena emango dio.

Edozein arrazoiengatik hori amaitzen denean, GGLAk, berehala, hitzarmena gauzatzearen ondorioz eskuratu ahal izan duen informazio oro itzuliko du, hori edozein euskarritan egonda ere.

Aipatu informazioa itzuli arte, GGLAk hori modu egokian gordeko du.

ZAZPIGARRENA.- Erantzukizuna.

GGLAk, berak edo informazioa eskura dezakeen langileren batek hitzarmen honetan jasotako betebeharretakoa edozein ez betetzearen ondorioz sortutako kalte-galera guztien erantzukizuna izango du.

ZORTZIGARRENA.-Hitzarmena amaitzea.

Hitzarmena amaitu egingo da ondoko kausaren bat gertatzen denean:

- indarraldia igaro delako;
- aldeek espreski erabaki dutelako;



- alderen batek hitzarmena salatu duelako, horren arabera beste aldeak bere gain hartutako betebeharrak ez betetzeagatik; betebeharrak bête ez dituen aldeak beste aldeari ez betetze hori dela-eta eragindako kalte-galera guztien erantzukizuna izango du;

- Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza desegin delako.

BEDERATZIGARRENA.- Indarrean sartzea eta indarraldia.

Hitzarmen hau sinatzen den unean jarriko da indarrean eta GGLAK taldeentzako MUGI txartelak izapidetzearen eta igortzearen baldintzapean egongo da.

Eta adostasuna erakusteko eta hitzarturiko guztia behar bezala jasotzeko, aldeek dokumentu honen bi ale sinatu dituzte, idazpuruan adierazten den tokian eta egunean.

HAMARGARRENA.- Araubide juridikoa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta Toki Araubidearen Oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 57. artikuluan eta azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 30/1992 Legearen 6. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako araubidea aplikatuko zaio.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Asenjo jauna

Euskal Herrian eta Estatu mailan horrelako txartel bakarra da. Txartela erabili ahal izateko erroldatuta egon behar da eta herritarrei gauzak erreztako hitzarmen hau sinatzeko eskatu zaio Udalari, erroldatutako datuak lagatu ahal izateko.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketan egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0



Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

7.- Aurrekontuaren aldaketen kontu ematea

Kontuhartzaile jauna

Azaldu ditu dekretuen bidez onartu diren kreditu aldaketen nondik-norakoak.

Udalbatza plenoa jakinaren gainean geratu da.



Jarraian, Alkate jaunak urgentziz aurkeztutako puntuaren berri eman du:

.- BILDU taldeak aurkeztutako mozioa HASSANNA AALIA asilo ematearen aldekoa.

Mozio hau izenpetzen duten talde politikoek bere eztabaidarako eta onespenerako hurrego PROPOSAMENA aurkezten diote Erakundearen Osoko Bilkurari, Hassanna Aaliari babes politikoa ukatzearen inguruan (eta Estatu espainiarra uzteko 15 eguneko epeari buruz).

Hassanna Aalia 1988an El Aaiunen jaio zen, Mendebaldeko Saharan.

2010ean Gdeim Izik kanpamentuko protesta baketsuan parte hartzen du aktiboki. Gertaera honengatik epaitua izan zen eta lau hilabeteko espetxe zigorra ezarri zioten.

2011ko urrian ikasketa beka bati esker Bilbora bidaiatzen du. El Aaiunera itzultzeko bi hilabete falta zirenean bere izena agertzen da Gdeim Izikeko gertaerengatik Auzitegi Militar batek epaituko dituen pertsonen zerrendan; hark Bilbon geratzea erabakitzen du eta gobernu espainiarrari babes politikoa eskatzea, bere herrira itzuliz gero autoritate marokoarrek kartzelatutako luketelako.

2013ko otsailaren 17an Rabateko Auzitegi Militarrak 25 zibil sahararen kontra sententzia ematen du; Hassanna Aaliari biziarteko kartzela-zigorra ezartzen dio (errebeldian aitortuta)ñ

Hainbat nazioarteko legelari ospetsuek epaiketa erabat deuseztat jotzen dute: ez zegoen ez lekuko fidagarririk ez probarik, horrela Nazioarteko Zuzenbideari (Genovako Hitzarmena) bizkarra emanez.

Harrezkero estatu espainiarrean zehar dabil, kartzelatutako bere lagunek sufritzen duten babesgabetasun egoera jakinarazten eta erregimen marokoarrak egunero Herri Saharara Menderatze aldera eragiten duten bidegabekeria salatzen.

2015eko urtarrilaren 19an Hassannari bere babes-eskaerari uko egiten zaiola jakinarazten diote eta lurralde espainiarra uzteko 15 eguneko epea ematen diotela.

Guzti hau dela eta, egoeraren larritasunaren aurrean, Bilkura honek honako

ERABAKIAK hartu ditu:

- 1.- Hassanna Aaliari sostengua eta elkartasuna adieraztea.
- 2.- Espainian dagokion autoritateari eta Barne Ministroari gai honetan parte hartzea: espainiar estatuaren lurraldea uzteko agindua bertan behera utziz eta Hassana Aliaren asilo eskaera berriro aztertuz.
- 3.- Marokoko Gobernu Mendebaldeko Sahararen eragiten ari den Giza Eskubideen bortxaketa areagotzen ari denean gure kezka azaltzea. Errepresio egoera honi amaiera eta Saharako preso politiko guztiak aske uztea eskatzen dugu.
- 4.- Mendebaldeko Saharan NBEk adostutako Autodeterminazio Erreferenduma ospatzea eskatzea; hau baita konflikto luze hau lurraldearentzat modu iraunkor, baketsu eta egonkorrean konpontzeko era bakarra.
- 5.- Akordio hauek ondoko erakundeetara bidaltzea:

- a. ESPAINIAKO ERREGE-ETXERA
- b. ESPAINIAKO GOBERNU BURUARI
- c. KANPO HARREMANTERAKO ESPAINIAR MINISTROARI
- d. ESPAINIAKO BARNE MISTROARI
- e. NAIO BATUEN AURREKO ESPAINIAKO MISIO IRAUNKORRARI
- f. ACNURREN ORDEZKARITZA ESPAINIAN
- g. EUROPAKO PARLAMENTIKO PRESIDENTEARI
- h. EUROPAR KONTSEILUKO PRESIDENTEARI
- i. MAROKOK ESPAINIAK DUEN ENBAXADARA.

Presazko izaeraren Bozketa

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:



Maiza andrea

Mozioa nondik-norakoak azaldu ditu eta zati erabakitzailea irakurri du, hitzen-hitz.

Santamaría jauna

Adierazten du zalantzak dituztela 3. Eta 4. Puntuekin. Mozioa oraintxe jaso dute eta ez dute aztertzeko denborarik izan. Mozioaren puntuak aparte bozkatzea eskatu du.

Azkenean, berak esan du nahiago dutela dena batera bozkatzea.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketan egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



8.- Galde-erreguak

Ez da egon.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.